elizalde HERRI ESKOLA

INFORMAZIO ORRIA

Zenbakia: 5 Astea: **2019/09/11**

Hezkuntzan murrizketarik ez!

ESKOLAKO OHARRAK

BEKAK

Urtero bezala, zuen seme-alabentzat jantokiko eta materialerako bekak eskatzeko aukera izango duzue. Epea irailak 30etik urriak 25a arte irekita egongo da.

VI BERTSO BAZKARIA

Aurten, Elizalde Eskolako VI Bertso Bazkaria antolatu dugu, urriaren 12an, larunbata, eguerdiko 14:00etan. Ander Lizarralde, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Maddalen Arzallus bertan izango ditugu, eta herriko bertso eskoletako gazteek ere, parte hartuko dute. Txartelak salgai daude eskolan 20 eurotan helduentzat (18 urtetik gora), 12 eurotan gazteentzat (12 eta 18 urte artean) eta umeentzat (0 eta 12 urte artean) 5 eurotan. Aurreko ikasturteko eskariei erantzunez, haurrak zaintzeko zerbitzua ere edukiko dugu, DBHko ikasleen laguntzaz.

Hurbil zaitezte ikuskizunaz gozatzera. Lan egiteko prest bazaudete, laguntza beharko dugu sukaldean eta bazkaria zerbitzatzeko. Idazkaritzara hurbildu eta zuen izena eman dezakezue.

KANPOKO OHARRAK

IPUIN KONTAKETA

Datorren urriak 23an, asteazkena, Lur Korta ipuin kontaketan arituko da Manuel Lekuona bibliotekan. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera izango da eta 4 urtetik gorako ikasleentzat zuzenduta egongo da. Garrantzitsua da ordutegia eta adina errespetatzea.

IBARGAIN MUSIKA ESKOLA

Matrícula 2019-2020 Matrikula

Azken egunak

Musikara Hastapena 23 €tik

Musika Taldea 17 €tik

Zatoz gurekin musikaz gozatzera!

- **Urriak 20 arte**
- **5 urtetik gorakoentzat**
- **Kuota bereziak Oiartzunen erroldatu**

edo eskolatuentzat

Aialde, 8 Bajo 20180 Oiartzun 943 49 38 85 ibargainmusikaeskola@gmail.com